



AUMATEGI

19 zbk

2010 Abendua

BARRUNDIAKO EZKER ABERTZALEA AZKEN URTEOTAKO DIAGNOSTIKOA EGITEN

Barrundian azkenengo hauteskundeak burutu zirenetik ia 4 urte pasa egin dira. Aurreko legegintzaldian egin bezala, oraingoan ere Barrundiako egoeraren diagnostiko bat burutzen ari gara. Diagnostiko honen helburua, gure udalerrriaren egoera zein den jakitea da. Alde batetik begirada orokor bat bota nahi dugu, alegia, zer mailaraino Barrundia euskaldunagoa, herritarragoa, partehartzaileagoa, sozialagoa,... erakitzen ari garen; eta bestetik, udaletxeko lanari dagokionez arloz arloko azterketa sakonago bat egitea. Helburu nagusia ez da zehatz mehatz egin diren eta egin ez diren gauzak zerrendatzea, baizik eta Barrundiako egoeraren argazki bat

Buletin honen edukiak:



BARRUNDIAKO EZKER ABERTZALEA AZKEN URTEOTAKO DIAGNOSTIKOA EGITEN	Pag. 1,2
2.233.672'46 €KOSTATU DA, ORAIN ARTE, IDUIA JAUREGIA...	Pag. 3,4
UDAL INFORMAZIOA	
• UDAL LIBURUTEGIA	Pag. 4
• HITZARMENA AGURAINGO UDALAREKIN ...	Pag. 4
• ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN IGOERA	Pag. 5
• KONTRAESANAK HIRIGINTZAN	Pag. 5
• HAUR-ESKOLA	Pag. 5
BRRUDAN USKRZ 2ZI NH DG	Pag. 6
“EGITEN DAKIGULAKO”	Pag. 7
LEGALIZAZIOA ORAIN!	Pag. 7
ASKATASUNA GARESTI SALTZEN DENEAN	Pag. 8

aumategi@yahoo.es

edukitzea. Azterketa honetatik, Ezker Abertzaletik Barrundian ikusten diren hutsuneak aterako dira, eta aldi berean, hurrengo urteetara begira errealitate hau zuzentzeko proposatuko da Herri Programa bat.

Artikulu honetan ez gara zehaztasunetan sartuko eta gure udalerrriaren eta udaletxearen egoeraren zertzelada nagusiak aipatuko ditugu, bi maila bereiziz: herri mailako dinamika eta udaletxe kontuak.

Orokorrean, gaur egun Barrundia biziago dagoela uste dugu; **herri mailako** mugimendu ezberdinak sortu direlako azkenengo urteetan eta horiek bizitasun handia eman diote udalerriri: gazte mailan, euskararen alde, gai sozial ezberdinekin,... Egitasmo hauek aurrera eramantuzten pertsona guztiak zoriondu nahi ditugu, partehartze sozial handiagoa eta barrundiarron aktibazio mailaren igoera suposatuz duelako. Gizartea eraldatu nahi dugu, Barrundian gauza asko aldatu nahi ditugu, eta horretarako ezinbestekoa da herritar informatu, aktibo eta partehartzaileak. Hori da gure lanabes nagusia.

Udaletxe mailan, emaitzak gazi gozoak izan direla esan dezakegu. Legegintzaldi hasieratik posizioak oso argi markatu izan dira, alegia, alde batetik EAJko lau zinegotzien bozkak, eta bestetik Ezker Abertzaleko hirua bozkak. Dikotomia

honek lehenengo unetik tentsionamendu maila handia ekarri du ple-noetara, eztabaida politikoari espazio gutxi utziz eta planteamendu ezberdinen kontrasterako aukerak mugatuz. Hala ere, Ezker Abertzalearen lanak barrundiarrontzat lorpen handiak ekarri dituela uste dugu eta hau posible izan ez denean kondizionatu egin dira erabaki asko. Benetako oposizio bat edukitzeak asko urduritu egin du EAJko taldea eta Ezker Abertzaleari arrazoia ez ematearren ideia eta proiektu asko aurrera eraman gabe gelditu dira, alegia, EAJ proposamenak nondik zetozen begiratzen ibili da, barrundiarron nahi eta beharrei begiratu beharrean.

Beste lorpen bat, udaleko lana udaletxeko lau paretetatik ateratzea izan da. Kontziente gara lan handia gelditzen dela, udala barrundiarrak bere egiteko, baina herritarrak informazioa eduki dezaten ahalegindu da Ezker Abertzalea udalean sartu zenetik. Ez dugu ulertzen herritarren partehartzerik gabeko udalik, eta norabide honetan lehenengo neurria gure bizilagunak informatua edukitzea izan da. Esku artean daukazuen AUMATEGI boletina horretarako ezinbesteko tresna gisa ulertzen dugu eta lan handia egiten jarraituko dugu zuen etxetara udaleko eta egunerokotasuneko gai ezberdinak helarazteko.

2.233.672'46 €
KOSTATU DA, ORAIN ARTE, IDUIA
JAUREGIA

Iduia Jauregia erostea eta birgaitzea izan da gobernu-talde honen proiektu nagusia, bertan jarri nahi baititu udal-txea, liburutegia, gimnasioa, mediku-kontsultategia etab. Horretan jarri ditu udalak baliabide gehienak, bai baliabide ekonomikoak, inbertitu behar den dirutzagatik, bai giza baliabideak ere, proiektuak eta obrak kontratatzeko, dirulaguntzak eskatzeko, egiaztagiria egiteko eta abarretarako gestioak eta trami-teak egiten emandako denboragatik.

Une honetan, birgaitzeko 3. fasean gaude, sarrera nagusia konpontzeko eta mediku-kontsultategia egiteko. Hala ere, aurreko bi faseak guttiz likidatuta daudenez, orain arte izandako gastuaren balantzea egin daiteke. Gastua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, eta, denboran zehar hainbat informazio eman dugunez dagoeneko, hemen Iduia Jauregiko hasierako bi faseen datuak emango ditugu batera.

KOSTUA GUZTIRA (proiektuak + obrak): 2.233.672'46 €

DIRU-LAGUNTZAK: 1.879.102'97 € (% 84'13)

UDALAK JARRITAKO FUNTSAK: 354.569'49 € (% 15'87)



Datu hauek guztiak ikusita, ukalezina da diru-laguntza ugari jaso arren gastua handiegia dela (orain arte gastatutakoak gaintitu egiten du, dagoeneko, Aguraingo udalak hango udaletxean gastatu zuena, eta ez zen gutxi izan).

Beste datu bat: lehenengo fasean (etxea erostea barne) gure udalak egin behar izan zuen ekarpena nabarmen txikiagoa izan zen portzentajetan.

Udalak jarri behar izan duen dirua Barrundiako 910 biztanleen artean zatitzen badugu, **390 €ko** gastua ateratzen da biztanleko. Ahaztu gabe dirulaguntzak ere gure poltsikoetatik ateratzen direla.

Iduiako Jauregian erabiltzen ari diren diru guztia ez da erabiltzen politika sozialeretan, etxebizitzan eta abarretan.

UDAL INFORMAZIOA

⇒ UDAL LIBURUTEGIA

Iduia Jauregiari erantsitako eraikinaren diseinuak, zeinetan liburutegia, gimnasioa eta beste gauza batzuk jarriko baitira, polemika sortu zuen bere garaian, altuera desberdinak izateaz gain, ez baitu ez teilarik, ez hegalki, ez maldarik. Jende gehienari ez zaio estalki hori gustatzen estetikoki, baina arazoa ez da hori bakarrik. Gaur egun, udal-liburutegian hezetasuna dago estalkiagatik eta lurretik igotzen den hezetasunagatik, ez baitzen behar bezala isolatu. Horrek arazoak sortzen ditu lokalaren erabileran eta liburuaren kontserbazioan. Hortaz, berriro ere sortzen zaigu kezka gauzak hasieratik aurreikusi eta ondo egin ez izanagatik (guk 2005eko uztaileko AUMATEGI buletinean eskatu genuen bezala).

⇒ HITZARMENA AGURAINGO UDALAREKIN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEKO

2008tik daramagu Aguraingo Udalarekin hitzarmen bat sinatzekotan hango kirol-instalazioak erabili ahal izateko. Hitzarmen hori inplementatu da, dagoeneko, Lautadako beste udalerririk batzuetan, eta sinatuta balego, Barrundiako bizilagunek merkeago erabili ahal izango lituzkete instalazio horiek. Gaia ez da hain korapilatsua, eta arduradun politikoek erabakia hartu beharko lukete behingoz.

⇒ HAUR-ESKOLA

Barrundiako haur-eskola bukatuta dago, baina oraingoz ez da irekiko. Azaroaren 8rako ireki behar bazen ere, ez da matrikulazio nahikorik izan martxan jarri ahal izateko. Hori ez da harrizkoa, izan ere, familiek aldeztu aurretik planifikatu behar

izan dute ikasturtea eta, gainera, haurrak egokituta daude beste haur-eskola batzuetan.

Irekitzeko izan duen atzerapenaren arrazoiak alde batera utzita, haur-eskola hezkuntza-zerbitzu garrantzitsua da, eta aurrerago hasiko da martxan.

⇒ ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGAREN IGOERA

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza 2009ko urrian aldatu zen. Zerga hori orain kobratzen da, urte bukaeran, eta aurtengo zergaren igoera % 46,8koa izango da batez beste. Batzuentzat igoera txikia izango den arren, beste batzuentzat % 100etik gorakoa izango da, eta hori saihestu egin zitekeen karga-tasa txikiagoa jarrita.

Gure aldetik, beharrezko ikusten dugu udalaren zerga-politika aldatzea. Errenta txikiei hobariak eskaintzeko eskatzen dugu, eta ez daitezela zergak neurritz kanpo igo, gutxienez, hirigintzako aprobetxamendua balio errealaren arabera edo gainbalioen gaineko zerga, besteak beste, kobratzen ez diren bitartean.



⇒ KONTRAESANAK HIRIGINTZAN

Etxabarri-Urtupinako lurzoru urbanizagarri famatuari dagokionez (20 txaleteko makrourbanizazioa), hasieran jabeen erosteta-erabileraren kontratua egin zitzaizkien, plan partziala egin zen eta eraikigarritasuna handitzeko eskatu zen, nahiz eta ez zen onartu. Azkenean, zorionez, adreiluaren krisiak sustatzaileek atzera egitea ekarri du. Udalak, abala itzultzeaz gain, txosten bat eskatu zuen lurzoru hori planeamendutik atera zezakeen aztertzeko jabeen edo sustatzaileen kalte-ordainik ordaindu gabe. Aurtengo abuztuan izan zen hori eta, esan zuten bezala, beren asmoa lurzorua planeamendutik ateratzea zen. Dena dela, azaroan, aldeko txostena gorabehera, iritzia aldatu dute: dagoeneko ez dute Etxabarriko lurzoru urbanizagarria planeamendutik atera nahi, ezta beste inongoa ere (Etxabarriko kenda, jabeen eskatu dutelako).

Beraz, EAJ, gure udala gobernatzen duen alderdi politikoa, agerian gelditu da, ez baitu neurririk gabeko hirigintza-hazkundea geldiarazteko inolako apusturik egin. Ez ditu politikak jasagarriak egin nahi. Ezin da Tokiko 21 Agendaren alde egin eta jasagarritasunari buruz hitz egin eta, aldi berean, lurra neurrigabeko hirigintza-okupaziotik babesteko politikari uko egin.

BRRNDAN USKRZ 2ZI NH DG!!

Euskaldun izatea no es fácil. Komunikabideek mogollon de información ematen digute. Batetik ingelesak zertan dabilzan, bestetik que hacen los españoles, frantsesak eta beste millones de europeos. Euskaldunak euskal izaera eta kultura aurkitzeko, tiene que buscar y rebuscar. El bombardeo informativo es masivo eta gu ez gara estatu gabeko, kultura txiki bateko, hiritar europarrak besterik. Ni más ni menos. Horregatik berdintasuna aldarrikatzeko este texto, euskaraz eta castellanos, denok entendemos! Euskara bere kabuz no es nada, una hizkuntza. Euskara y ls euskaldunas son egiten dutenak herria. Eta como esaten du un esaldi de un jakintsu “una hizkuntza ez da galtzen ls que no saben ikasten ez dutelako, ls que saben erabiltzen ez dutelako baizik”.

Orain da momentua, Barrundiara ere heldu da euskararen olatua. Ez dakit nondik datorren, BECen ospatu zen bertsolari txapelketa nagusitik edo hego haizeak dardarren, baina ongi etorri! Gogotsu dabil jendea, bertsoa, dantza edo parranda, aitzakia dena delakoa izanda ere bide ona aukeratu dugu.

Olatu honek ezagutzen zuen Barrundia aurrez, aspaldi bada ere hemen izana da euskara. Hilik egon dela sinestarazi nahi izan digute baina hori ez da egia. Euskara lo sakonean egon da lautadako lur

hauetan Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala. Baina presente izan dugu han eta hemengo leku izenean, zenbait lagunen buruan eta baita hainbaten mihi puntan, nahiz eta eurek jakin ez! Pentsa!

Bada garaia bertako amona eta aitonek esaten duten moduan mihia dantzan jarri eta dale betagarri! euskaraz ekin eta ekin ezina egi egiteko. Gure hitza baita euskarari bizitza emateko giltza.

“EGITEN DAKIGULAKO”

Legegintzaldia amaitzeko oso gutxi falta denean, komeni da gogoraraztea EAJk 2007ko udalhauteskundeetarako aukeratutako leloa “**egiten dakigulako**” izan zela. Komeni da gogoraztea, zeren eta egintzak dira baloratu behar direnak, ez hitzak edo asmoak.

Oraintxe da unea hausnartzeko Barrundiako EAJk ezer “egiten jakin duen” etxebizitza-politikaren arloan. Edota “egiten jakin duen” zentral eolikoko bidezko kanonak eskatzeari dagokionez. Halaber gogoratu behar da zenbat kostatu den haur-eskola martxan jartzea edo Agurainekin hitzarmena egitea kirol-instalazioak erabili ahal

izateko.

Beste gai batzuek ere erakusten digute “egiten jakin” duten ala ez: herri-tarrek parte hartzeko politikak, euskararen normalizazioa, Tokiko 21 Agendaren eta jasangarritasun-politiken garapena etab. “Egiten jakite” hori gehien nabarmendu den gaia hirigintzakoia izan da, izan ere, Barrundiako herritarrei ez zaie babesik eman, ez da herrien hazkunde neurrigabea geldiarazi nahi zian, zenbait kontutan ez da arbitrariotasuna galarazi (adibidez, batzuei “zeramikazko teila arabiar gorri” fama-tua eskatzea eta beste batzuei teilatua jartzeko ere ez eskatzea).

LEGALIZAZIOA ORAIN!

Pasa den azaroaren 27an ezker abertzaleak Iruñean aurkeztu zuen proiektu politiko eta antolakunde berri bat izango dena. Labur esanda, jarraian aipatzen diren oinarriekin konprometituko da proiektu politiko berria: independentzia, euskalduntzea, justizian eta askatasunean oinarritutako etorkizun baketsuaren alde, sozialismoa, feminismoa, herrien arteko elkartasun internazionalista eta demokrazia parte hartzailea.

Antolakunde berriak, aurreko ereduak gaindituz, printzipio bezala “barne estruktura eta funtzionamendu demokratikoa” izango du, eta “bide baketsu eta demokratikoetatik” garatuko du bere jarduera. Horrez gain legeztapena lortzeko tramiteak hasiko dira Partiduen Legea beteko duten estatutuak aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik, ez dago inolako aitzakiarik, eta ezker abertzaleari ezin zaio exijitu besteei exijitzen ez zaiena. Herri honen gehiengoak proiektu politiko guztientzako aukera berdintasuna aldarrikatzen du.



ASKATASUNA GARESTI SALTZEN DENEAN

Askotan hitz egin dugu boletin honetan euskal preso politikoak bizi duten egoeraz. Normalean kolektibo honen inguruan modu orokor batean hitz egin dugu, baina askotan gainetik pasatzen ditugu pertsona hauek eta beraien senideak bizi dituzten egoera zehatzak. Artikulu honetan aguraingo bizilaguna den Gotzone Lopez de Luzuriagaren egoeran zentratuko gara, izan ere 21 urte daramatza preso eta Estatu espainolaren espetxe-politika zuzen zuzenean sufritu du azken urteotan.

- **Dispertsatua:**

Otzone 1958ko Abenduaren 15ean jaio egin zen Agurainen. 31 urte zituela Guardia Zibilak atxilotu eta bortizki torturatu egin zuen, ondoren espetxeratua izateko. Espetxeratua daraman 21 urteetan beti espainiar kartzelatan dispertsatua egon da, gehienak Jaengo espetxean (18 urte), nahiz et gaur egun Valladolideko espetxean aurkitzen den, bere etxetik 236 kmra.

- **Gaixo larria:**

Kartzelaldia berez oso gogorra den egoera bat da, baina Gotzoneren benetako sufririkarioa bularreko minbizia diagnostikatu ziotenean hasi zen, 2007ko Ekainean. Tumorera kentzeko ebakuntza egin ostean, radioterapia sesioak hasi zituen, eta hauekin batera atzerapenak eta arazoak. Askotan ere sesioa jaso gabe bueltatu behar izaten ziren espetxera. Gotzoneren intimitatea behin eta berriz bortxatua izan da, eta ez du tratamendu hauek izan ohi dituzten ondorio latzak gainditzeko tratamendu zuzen eta duin bat jaso.

Legeak horrela diolako Aguraingo bizilagunaren askatasuna eskatu egin da askotan eta Jaengo espetxeko Tratamendu Juntak bere baldintzapeko askatasuna eskatzera heldu zen arren, Audentzia Nazionalak hilabete batzuk geroago askatasun hau ukatu egin zuen, gartzelera eraman zituzten ideietan irmo jarraitzeagatik.

- **Bahitua:**

Hau guztia gutxi balitz, urte honetako Abuztuaren 11n Auzitegi Gorenaren doktrin aplikatu zitzaion, zeinaren arabera 30 urte giltzapean igaro beharko ditu, hau da 9 urte gehiago; nahiz eta kondena osoa bete zeukan. Espainiar legedian agertzen ez der arren, “Parot doktrina” bezala ezagutzen den biziarteko espetxealdien aplikazio besterik ez da. Doktrina honen aplikazioa kolpe handia izan da berarentzat eta bere familiarentzat, izan ere Gotzonek esaten duen bezala “giltzapean egon behar duen pertsona batentzat gutxieneko bat da jakitea zein den betetzen ari den kondena, baita zein egoera-legeen arabera betetzen duen”.

Gotzoneren egoera bidegabea bat da, bere kondena osorik bete duen arren (espainiar legedien arabera) eta gaixo larria den arren, bizi guztirako egoera jasangaitza pairatzen ari dira. Nahiz eta espainiar epaitegiek sententzia emana daukaten ahalik eta jende gehien sentsibilizatu, kontzientziatu eta mobilizatu behar dugu Gotzonek behingoz bere askatasuna berreskuratzeko eta gure artean egoteko.

